



ARTE-, KULTURA-, ZIENTZIA- ETA KIROL- HEZKUNTZA PROGRAMA

2026-2027 IKASTURTEA

WWW.MAIRIE-CIBOURE.FR
WWW.ZIBURUKO-HIRIA.EUS

AURKIBIDEA



DENEN IBILBIDEAK

- ◆ **Musika**
Cmr musika-hezkuntza ibilbidea | 8
- ◆ **Ikuskizun bizia**
Ikuskizun bat Eguberrirako | 9
- ◆ **Kirola**
Belaontzi itsasketan hasteko saioak | 10
Igeriketa klaseak | 11
Bizikletaz ibiltzen jakin | 12
Joko Eguna | 13
- ◆ **Prebentzioa**
Salbatzeko jestuei buruzko sentsibilizazioa | 14
Hazkurri prekaritateari buruz sentsibilizatzeko ibilbidea | 15

**ZIBURU
CIBOURE**

MAIRIE – HERRIKO ETXEA

Argitalpen zuzendaria:

Eneko Aldana-Douat, Ziburuko auzapeza

Testuak: Kultura, ondarea eta elkarte bizitza saila

Sorkuntza : Komunikazio saila

Orrialde antolaketa: Donibane kopi

Itzulpena: Zirtoka - Argitxu Errotabehera

Argazkiak: CPIE, Mapirudi, Komcebo, Freepik, Ziburuko hiria,

Jean-Marc Hellies, Eric Walther

Inprimatzea: Donibane kopi, Donibane Lohitzune

Liburuxka hau paper birziklatuan inprimatuta dago.

Lizentzia 1: PLATESV-D-2022-006462

Lizentzia 2: PLATESV-D-2022-006464

Lizentzia 3: PLATESV-D-2022-006463

HAUTUZKO IBILBIDEAK

- ◆ **Musika**
Soinu-paisaiaren bihotzean | 17
- ◆ **Ikuskizun bizia**
Indar ttipiak ezagutzera | 19
Gauzakiak bizidun bihurtu, beste bide batez kontatu | 20
- ◆ **Irakurketa publikoa**
Kantu eta ipuin tapiza edo dabantala sortu | 21
Irakurri, erran eta kontakizunean sartu | 22
- ◆ **Ondarea**
Esploratzaileak, Arte eta Historia Herrialdeko hezkuntza-ekintzak | 23
- ◆ **Zientzia- eta teknika-kultura**
Euskal Itsasbazterreko IEZiren ingurumen-hezkuntza ekintzak | 25
«Ohitura ekoarduratsuak» pedagogia-maleta | 29
«Desberdintasuna eta ahalmen urritasuna» pedagogia-maleta | 30
Erleen mundua ezagutzera | 31
Ongi jateari buruzko hezkuntza-ibilbidea | 32
Gizarteratze numerikoaren kodeak | 33

AUTONOMIAN BALIATZEKO BALIABIDEAK

- ◆ **Kaskaroten ibilaldia** | 35
- ◆ **Bidexka antolatua Untsin auzotegiaren bihotzean** | 36

SAR-HITZA

2020tik goiti, Ziburuko Herriko Etxeak kultura, ondarea eta elkarte-bizitzaren zerbitzu bat sortzeko hautua egin du, **kultura-eskaintza aberatsa, helgarria eta denei irekia garatzeko** gisan herriko lurralde osoan.

2021etik goiti, tokiko eta Frantzia mailako kultura-eragileekin, elkarteekin eta konpainiekin loturan, Herriko Etxeak **arlo anitzeko arte-programazio** bat hedatzen du, ikuskizun bizia eta irakurketa publikoa dituelarik ardatz besteak beste. Azken hori ibiltaritzaz ildo batetik eraikia da, hala eremu publikoan nola herriko ekipamenduetan, ondare-guneetan edo ikastetxeetan zabalduz.

2022tik goiti hezkuntza artistikoa eta kulturalaren inguruko gogoeta bat eramaten ari den Herriko Etxeak urraspide hori ikastetxeetan proposaturiko hezkuntza-ekintza guzietara zabaldu du pixkanaka (kultura, kirola, garapen iraunkorra, hizkuntza politika...). Oldar horren ondorioz, arte-, kultura-, zientzia- eta kirol-hezkuntza programa bat sortua izan da 2024-2025 ikasturtean.

2026-2027 ikasturterako, programa horrek **sendotze xede** bat darama. Ibilbide koherenteak, ulergarriak eta osagarriak proposatzea du helburu, ekintzen kalitatea eta iraunkortasuna lehenetsiz.

Arreta berezia ezarria da **proiektuak irakasle taldeekin elkarlanean eraikitzean**. Programaren xedea da behar pedagogikoei egokitzea, ikastaldean proiektuekin batera antolatzea eta irakasleekin, herriko zerbitzuekin eta kultura-partaideekin elkarriketa erregularrean eraikitzea.

Aurkezturiko ekintzak Herriko Etxeko ekipamenduetan, gaitasunetan baita lurraldearen mailan garaturiko lankidetzan oinarritzen dira. Frantziako hezkuntza nazionalako pedagogia-aholkulariekin loturan apailatuak dira eta eskola garaian antolatuak.

Xede beretik doaz: **ikasleen sentikortasuna, sormena eta izpiritu kritikoa garatzen laguntzea**, beren autonomia eta talde-dinamiketan sartzeko gaitasuna sustatuz.

Proposamen horiek zuenganatzera eta herriko zerbitzuekin eta partaideekin zuen gogoei eta helburu pedagogikoei egokituriko proiektuak eraikitzen laguntzen zaituztegu.

Irakurketa on,

Leire Larrasa

Hezkuntza, haurtzaroa, gazteria eta hizkuntza politikaren ardura duen 1. auzapezordea

Emilie Dutoya

Kultura, ondarea eta elkarte-bizitzaren ardura duen 3. auzapezordea

2025-2026 ikasturtearen berri

2025-2026 ikasturteak programaren hedatzean urrats handia markatu du.

Orotara, 40 ibilbide proposatuak izan dira, horietako 8 denen ibilbide eta 32 hautuzko ibilbide, hots 98 saio ikasturtean.

Ikastetxe guziek oldar horrekin bat egin dute arrunt: ikastalde eta ikasle guzi-guziek ekintza bat bederen baliatu dute, hots 21 ikastalde eta 381 ikasle orotara.

Emaitza horiek pedagogia-taldeek dispositiboak berenganatu dutela erakusten dute eta irakasle, herriko zerbitzu eta lurraldeko eragileen arteko elkarlanaren abantaila berresten dute.

Oldar hori aitzina joatera akuilatzen gaituzte, proposaturiko ibilbideen kalitatea, ulergarritasuna eta eraikuntza-kidetzaz indartuz.



HEZKUNTZA ARTISTIKO ETA KULTURAL BATERAKO GUTUNA

HEZKUNTZA ARTISTIKOA ETA KULTURALAREN GOI KONTSEILUAREN EKIMENEZ

1

Hezkuntza artistikoa eta kulturala denei helgarri izan behar da, eta batez ere gazteei ikastetxeen galtzarrean, ama eskolatik unibertsitatera.

4

Hezkuntza artistikoa eta kulturalak pertsonaren eta herritarraren heziketan eta nor bere buruaren nagusi jartzean parte hartzen du, sentikortasuna, sormena eta izpiritu kritikoaren garapenaren bitartez. **Hori ere arte bidezko hezkuntza bat da.**

8

Hezkuntza artistikoa eta kulturala partaideak biltzen dituen **proiektu-dinamika** baten ildotik doa (sortzea, ebaluatzea, gauzatzea).

2

Hezkuntza artistikoa eta kulturalak obrak ikustea, artistekin biltzea, arteetan trebatzea eta jakintzak lortzea **ahalbidetzen ditu.**

5

Hezkuntza artistikoa eta kulturalak **gazteen bizi denbora guziak** kontuan hartzen ditu, **familia-eta lagun-ingurumena** parte harrarazten duen ibilbide koherente baten harira.

9

Hezkuntza artistikoa eta kulturalak **eragile desberdinen formakuntza** bat eskatzen du, denen jakintzak, lorpenak eta erreferentzia berdinen partekatzea sustatuz.

3

Hezkuntza artistikoa eta kulturalaren helburua da kultura partekatu, aberats eta anitza lortzea bere ondare-adierazpenetan eta adierazpen garaikide, herrikoi eta jakintsuetan, hala Frantziako nola nazioarteko mailan. **Arteari buruzko hezkuntza bat da.**

6

Hezkuntza artistikoa eta kulturalak gazteei beren **esperientziei zentzua emateko** eta mundu garaikidea hobeki ulertzeko bidea eskaintzen die.

10

Hezkuntza artistikoa eta kulturalaren **garapena azterketa eta ebaluaketa** lan batzuen gaia izan behar da, ekintzen eragina ulertzeko, horien kalitatea hobetzeko eta urraspide berritzaileak akuilatzeke xedez.

7

Gazte guziei zuzenduriko hezkuntza artistikoa eta kulturala baliatzeko bide berdina partaide desberdinen arteko engaiamendu berean oinarritzen da: hezkuntza-elkargoa eta kultura-mundua, elkarteak eta sozietate zibila, estatua eta lurraldeko elkargoak.

2026 - 2027KO EGUTEGIA



2026KO EKAINAREN 22KO ASTEA

Arte-, kultura-, zientzia- eta kirol-hezkuntzaren programa hiru ikastetxeetako zuzendariei eta irakasleei aurkeztea

2026KO AGORRILAREN 24KO ASTEA

Ikastetxe bakoitzarekin elkartzea menturazko galderei erantzuteko eta hautuzko ibilbideetarako izen emateak biltzeko

2026KO AGORRILAREN 31KO ETA IRAILAREN 7KO ASTEAK

Hautuzko proiektuetarako izen emateak bururatzeko

2026KO IRAILAREN 14KO ETA 21EKO ASTEAK

Irakasleen izen emate administratiboa Adage plataforman (halakorik eskatzen duten proiektuetarako)



ARLOA	IZENA	Hizkuntza	Saio kopurua	AE1	AE2	AE3	AE4	LM1	LM2	LM3	LM4	LM5	Ikastalde kopuru gorena
DENEN IBILBIDEA													
Musika	Cmr musika-hezkuntza ibilbidea	FR eta EUS	Astero irailetik ekainera								x	x	Ikastalde guziak
Ikuskizun bizia	Ikuskizun bat Eguberrirako	FR, EUS edo hitzik gabe	1	x	x	x	x	x	x	x	x	x	Ikastalde guziak
Kirola	Ikuskizun bat Eguberrirako	FR	12									x	Ikastalde guziak
	Igeriketa klaseak	FR	10				x	x	x	x	x	x	Ikastalde guziak
	Bizikletaz ibiltzen jakin	FR eta EUS					x	x	x	x	x	x	Ikastalde guziak
	Joko eguna	FR	1	x	x	x	x	x	x	x	x	x	Ikastalde guziak
Prebentzioa	Salbatzeko jestuak	FR eta EUS	1									x	Ikastalde guziak
	Hazkuri prekaritatea	FR eta EUS	1									x	Ikastalde guziak
HAUTUZKO IBILBIDEAK													
Musika	Soinu-paisaiaren bihotzean	FR eta EUS	4	x	x	x							2
	Tradizioa eta sorkuntzaren artean: euskal musikak eta dantzak	EUS	3				x	x	x	x	x	x	3
Ikuskizun bizia	Indar ttipiak ezagutzera	Hitzik gabe	1		x	x							2
	Gauzakiak bizidun bihurtu, beste bide batez kontatu	FR	Berantago finkatzekoa							x	x	x	2
Irakurketa publikoa	Kantu eta ipuin tapiza edo dabantala sortu	FR	4	x	x	x							2
	Irakurri, erran eta kontakizunean sartu	FR	2								x	x	2
Ondarea	Esploratzaileak, Arte eta Historia Herrialdeko hezkuntza-ekintzak	FR eta EUS	Hautaturiko ibilbidearen arabera	x	x	x	x	x	x	x	x	x	Eskaeraren arabera
Zientzia-kultura	Euskal Itsasbazterreko IEZlren ingurumen-hezkuntza proiektuak	FR eta EUS	Egun erdia	x	x	x	x	x	x	x	x	x	6 egun erdi ikasturtean zehar
	"Ohitura ekoarduratsuak" pedagogia-maleta	FR eta EUS	1					x	x	x	x	x	Eskaeraren arabera
	"Desberdintasuna eta ahalmen urritasuna" pedagogia-maleta	FR eta EUS	Hautaturiko ibilbidearen arabera					x	x	x	x	x	Eskaeraren arabera
	Erleen mundua ezagutzera	FR eta EUS	2								x	x	1 ikastetxe bakoitz
	Ongi jateari buruzko hezkuntza-ibilbidea	FR	2					x	x	x			1 ikastetxe bakoitz
	Gizarteratze numerikoaren kodeak	FR (eta EUS)	4								x	x	1 ikastetxe bakoitz



DENEN IBILBIDEAK

- › Musika
- › Ikuskizun bizia
- › Kirola
- › Prebentzioa





MUSIKA

CMR MUSIKA-HEZKUNTZA IBILBIDEA

Ibilbide hori Frantziako Cmr federazioarekin lankidetzan proposatua da, hezkuntza herrikoi baten alde engaiatua delarik musika denei helgarri egiteko xedearekin.

Badu zenbait urte Ziburuko Herriko Etxea gaitasun horretan oinarritzen dela herriko ikastetxeetan musika saioak gauzatzeko gisan eskola garaian.

Ibilbidea epe luzekoa da eta ikasturte osoan zehar garatua. 45 minutuko asteko musika saioen inguruan antolatua da, musikari batek eramanik. Saio horiei esker, ikasleek musika adierazpen mota desberdinak ezagutzen dituzte, beren entzuteko gaitasuna garatzen dute eta taldekako aritzean parte hartzen dute.

Ibilbideak **musikari irekitzeko gaitasuna, arte-adierazpena, entzuteko gaitasuna eta elkarlana garatzeko** bidea eskaintzen du.



LM3 eta LM4



3 ikastetxeak



Iraila >> Ekaina



Ikasgelan



Frantsesez
Euskaraz



Urraspide
administratibo
berezirik ez



Kultura, ondarea
eta elkarte-bizitza
zerbitzua
[animations@
mairiedeciboure.com](mailto:animations@mairiedeciboure.com)

XEDETZAT HARTURIKO GAITASUNAK

- ☼ Pentsatzeko eta komunikatzeko mintzairak
- ☼ Ikasteko metodoak eta tresnak

Aritzea

Jakintzak



© Komcebo

IKUSKIZUN BIZIA

IKUSKIZUN BAT EGUBERRIRAKO

Ibilbideak herriko ikasle guziei, AE1etik LM5era, ikuskizun bizia ezagutzeko aukera ematen die urte bukaerako bestak kari.

Urtero, Ziburuko Herriko Etxeak **ikuskizun ateraldi** bat eskaintzen die ikasle guziei, adin desberdinei egokituriko programazio bat proposatuz.

2026-2027 ikasturterako, **bidaia, errealitatea eta irudimena** gaiaren inguruan antolatua da programazioa. Mota anitzeko arteen bitartez, ikuskizunek ikasleak mundu desberdinak ikertzeraz gomitatzen ditu, kontakizunak, zirrarak eta ezagutzak nahasiz, beste leku batzuetarako eta irudimenerako ateak zabalduz.

Ibilbidea honakoen inguruan antolatua da:

- Ikasleen adinari egokituriko ikuskizun bat ikustea
- Ikuskizun biziaren taldekako esperientzia

Hiru ikuskizun proposatuak izanen dira:

- LagunArte konpainiaren *SO*;
- Oscar Fou konpainiaren *La Grande Ourse (Hartz Handia)*;
- Les Involtes konpainiaren *PP Project*.

Proposamen artistiko horiek ikasleei ikuskizun biziaren lehen esperientzia edo esperientzia berria bizitzeko aukera ematen die, haien jakin-mina, sentikortasuna eta irudimena garatuz.

XEDETZAT HARTURIKO GAITASUNAK

- ⚙️ Pentsatzeko eta komunikatzeko mintzairak
- ⚙️ Pertsonaren eta herriarraren formakuntza
- ⚙️ Munduaren irudikapenak eta giza-jarduera

Topaketak



©Komcebo



AE1 >> LM5



3 ikastetxeak



Abenduan



Ikuskizunaren arabera



Ikuskizunaren arabera



Urraspide berezirik ez



Kultura, ondarea eta
elkarte-bizitza zerbitzua
[animations@
mairiedeciboure.com](mailto:animations@mairiedeciboure.com)



KIROLA

BELAONTZI ITSASKETAN HASTEKO SAIOAK

Ibilbideak LM5eko ikasleei **belaontzi itsasketan haste**ko saioak proposatzen dizkie, **kirol programaren helburuekin loturan**.

12 saioko ziklo bat da, eta ikasleei ontzi mota desberdinak ezagutzeko eta itsasoko itsasketa esperimentatzeko bidea eskaintzen die.

Ibilbidea honakoen inguruan antolatua da:

- Itsasketaren oinarriak ikastea (oreka, norabidea, aitzinatzea);
- Itsasoa eta itsasoko berezitasunak ezagutzea;
- Autonomia eta elkarlana sustatzen dituzten egoerak.

Ikasleak **naturagune ezegonkor eta aldakor batean ibili** behar dira, horrek egokitzeko gaitasuna, arreta eta ekimena eskatzen dituelarik.

Ibilbideak motor-gaitasunak, nork bere buruaren baitako konfiantza, erantzukizunerako jitea eta taldean aritzeko gaitasuna garatzea ahalbidetzen du, itsasoa hobeki ulertzeko bidea ere eskainiz.



LM5



Marinela eta San Mixel
ikastetxeetako ikastalde
guziak



Iraila >> Urria
Apirila >> Maiatza



Zokoan - Donibane
Lohizune-Ziburuko
badian



Frantsesez



Urraspide berezirik ez



Hezkuntza zerbitzua
m.martcorena@mairedeciboure.com

XEDETZAT HARTURIKO GAITASUNAK

- ☀ Pentsatzeko eta komunikatzeko mintzairak
- ☀ Ikasteko metodoak eta tresnak
- ☀ Natura-sistemak eta teknika-sistemak
- ☀ Munduaren irudikapenak eta giza-jarduera

Aritzea

Jakintzak



© Komcebo

IGERIKETA KLASEAK

Ibilbideak AE4 eta LM5 arteko ikasleei **igeri egiten ikastea** proposatzen die, kirol programaren helburuekin loturan.

10 saioko zikloak dira ikasturtean. Ikasleei uretako gaitasunak garatzeko bidea eskaintzen die.

Ibilbidea honakoen inguruan antolatua da:

- Ingurune urtarra ezagutzea eta lehen gaitasunak menperatzea (murgildu, igeri egon, mugitu);
- Motor-gaitasunak eta uretan ibiltzeko aisetasuna garatzea;
- Igeriketari loturiko segurtasun arauak ikastea.

Eskola garai osoan zehar eraikiriko irakaskuntzek ikasleak uretan aise ibiltzeko proba gainditzea dute helburu 3. zikloaren bukaeran.

Ibilbideak motor-gaitasunak, autonomia eta nork bere buruaren baitako konfiantza garatzea ahalbidetzen du, ikasleak ingurune urtarreko segurtasun erronkei buruz sentsibilizatuz.

XEDETZAT HARTURIKO GAITASUNAK

- ☀ Pentsatzeko eta komunikatzeko mintzairak
- ☀ Ikasteko metodoak eta tresnak
- ☀ Natura-sistemak eta teknika-sistemak



© Komcebo



AE4 >> LM5



3 ikastetxeak



Urte osoan zehar
Donibane Lohizuneko
igerilekuak finkaturiko
egutegiaren arabera



Donibane Lohizuneko
igerilekuan



Frantsesez



Urraspide berezirik ez



Hezkuntza zerbitzua
m.martcorena@mairiedeciboure.com



KIROLA

BIZIKLETAZ IBILTZEN JAKIN

Ibilbideak AE4 eta LM5 arteko ikasleei bizikletaz ibiltzen ikasteko urraskako bidea proposatzen die, autonomo eta arduratsu izan daitezen beren joan-jinetan, batez ere bigarren mailan sartzeko.

Hiru urrats osagarriren inguruan antolatua da:

- **AE4 eta LM1 mailetan**, pedalatzen jakitea: txirindularitzaren oinarriak ikastea: oreka, abiatzea, arrasta tinkatzea eta gidatzea
- **LM2 eta LM3 mailetan**, ibiltzen jakitea: bizikletaz ibiltzen ikastea eremu segur batean: taldean ibiltzea, nor bere asmoa seinalatzea eta zirkulazio arauak ulertzea
- **LM4 mailan**, bizikletaz ibiltzen jakitea: baldintza errealetan ibiltzea: eremu publikoan autonomian ibiltzen ikastea eta bizikleta bide desberdinak bereganatzea.

Horrez gain, hirizaintzako agenteek esku hartzen dute ikasleek Errepideari buruzko Lehen Hezkuntza Agiria prestatu eta gainditu dezaten.

Saio kopurua ikasleen adinari egokitua da.

Ibilbideak motor-gaitasunak, autonomia eta erantzukizun jitea garatzeko baita errepide segurtasunaren arauak ezagutzeko bidea eskaintzen du.

XEDETZAT HARTURIKO GAITASUNAK

- ☼ Pentsatzeko eta komunikatzeko mintzairak
- ☼ Ikasteko metodoak eta tresnak
- ☼ Natura-sistemak eta teknika-sistemak
- ☼ Pertsonaren eta herriarraren formakuntza



AE4 >> LM5



3 ikastetxeak



Iraila >> Urria
edo Maiatza >> Ekaina



Ziburun



Frantsesez
Euskaraz



Urraspide berezirik ez



Hautzaroa, gazteria
eta kirolak zerbitzua
[k.luberriaga@
mairiedeciboure.com](mailto:k.luberriaga@mairiedeciboure.com)

Aritzeta

Jakintzak



JOKO EGUNA

Ibilbideak herriko ikastetxe publiko eta pribatuetako ikasleei **egun jostagarri eta bateratzaile** batean parte hartzea proposatzen die, ikastetxe desberdinetako haurren arteko topaketa bultzatuz.

Hautzaroa, gazteria eta kirolak zerbitzuak urtero antolatzen duen eguna ikasleen adinari egokituriko joko une gisa antolatua da (egun erdia ama eskolakoentzat, egun osoa lehen mailakoentzat).

Ibilbidea honakoen inguruan antolatua da:

- ✧ Kirolak, arteak eta taldekako jarduerak nahasten dituzten **tailerrak**;
- ✧ Elkarlana, topaketa eta elkar-bizitza sustatzen dituzten **joko egoerak**.

Egun osoan zehar, ikasleek beren mailari egokituriko jardueretan parte hartzen dute, eskolako irakaskuntzekin loturan.

Urtero, Joko Eguna bi ziklo desberdinei proposatua zaie.

Ibilbideak gizarte-gaitasunak, arauen errespetua, talde izpiritua eta elkarrekin jostatzeko atsegina garatzea ahalbidetzen du.

XEDETZAT HARTURIKO GAITASUNAK

- ✧ Pentsatzeko eta komunikatzeko mintzairak
- ✧ Ikasteko metodoak eta tresnak
- ✧ Natura-sistemak eta teknika-sistemak
- ✧ Pertsonaren eta herritarraren formakuntza

Topaketak



AE1 >> LM5



3 ikastetxeak



Irakasle taldeekin
hitzartuz finkatzekoa



Guy Poulou erabilera
anitzeko gelan edo
Ziburuko hondartzan



Frantsesez
eta jokoen arau guziak
euskarara itzuliak



Urraspide berezirik ez



Hautzaroa, gazteria eta
kirolak zerbitzua
[k.luberriaga@](mailto:k.luberriaga@mairiedeciboure.com)
mairiedeciboure.com



PREBENTZIOA

SALBATZEKO JESTUEI BURUZKO SENTSIBILIZAZIOA

Ibilbideak LM5eko ikasleei **lehen sokorrietako oinarriak** proposatzen dizkie, segurtasun zibilari buruz sentsibilizatzeko eta haien eta besteen segurtasunaren egiazko eragile bilakatzeko gisan.

Ikasleen hezkuntza-ibilbidearen ildotik antolatua da eta prebentzioaren eta erantzukizunaren kultura garatzean parte hartzen du.

Ibilbidea honakoen inguruan antolatua da:

- Babestea eta abisatzea;
- Odol galtzeak;
- Goaitatzeko posturak;
- Alditxartzea;
- Bihotz gelditzea.

Esku hartzez osaturiko egun erdi baten denboran, talde ttipitan (10/15 ikasle), **Belharra Watermen Club elkarteak** du ekintza kudeatzen, eta ikasle bakoitzari diploma bat ematen dio.

Ibilbideak larrialdi baten kasuan hartu beharreko lehen erreflexuez jabetzeko, erantzukizun jitea garatzeko eta modu egokian erantzuteko gaitasuna indartzeko bidea eskaintzen du.

XEDETZAT HARTURIKO GAITASUNAK

- ⚙ Pentsatzeko eta komunikatzeko mintzairak
- ⚙ Ikasteko metodoak eta tresnak
- ⚙ Natura-sistemak eta teknika-sistemak
- ⚙ Pertsonaren eta herritarraren formakuntza



LM5



3 ikastetxeak



Irakasle taldeekin
hitzartuz finkatzekoa



Ikastexean



Frantsesez
Euskaraz



Urraspide berezirik ez



Hautzaroa, gazteria
eta kirolak zerbitzua
[k.luberriaga@](mailto:k.luberriaga@mairiedeciboure.com)
mairiedeciboure.com

HAZKURRI PREKARITATEARI BURUZ SENTSIBILIZATZEKO IBILBIDEA

Ibilbidea Ziburuko Gizarte Ekintzako Udal Zentroarekin (GEUZ) eta herriko hiru ikastetxeekin lankidetzan proposatua da, **gazteen aldean elkartasuna eta herritartasuna bezalako baloreak sustatzeko** Herriko Etxeak duen xedearen harira.

2024an arrakastatsua izanagatik luzatua izan den ibilbideak ikasleak hazkurri prekaritateari eta janariaren xahutzeari buruz sentsibilizatzea du xede. Esku hartze pedagogikoa antolatua da ikasgelan GEUZeko hazkurri laguntzarako zerbitzuaren koordinatzaileak eta esku hartzaile euskaradun batek animaturik, eta prekaritatearen errealitateak, elkar laguntzaren mekanismoak eta elkartasunezko jesteren garrantzia aipatzen ditu.

Ondotik, ikasleek janari eta garbitasun produktu biketa batean parte hartzen dute beren ikastetxean, GEUZaren banaketa lokalaren murgiltze-bisita batek osaturik, dispositiboaren antolaketa eta boluntarioen lana ezagut dezaten.

Ibilbideak enpatia, herritar izpiritua garatzeko xedea du, ikasleak elkartasunezko eta taldekako urraspide batean engaiatzera akuilatuz.

XEDETZAT HARTURIKO GAITASUNAK

- ☼ Hazkurri prekaritatea eta elkartasuna nozioak ulertzea.
- ☼ GEUZaren eta hazkurri laguntzaren eragileen eginkizuna ezagutzea.
- ☼ Janari xahutzeari loturiko erronkak identifikatzea.
- ☼ Elkartasunezko eta taldekako ekintza batean parte hartzea.
- ☼ Janari biketa batean engaiatzea.
- ☼ Hazkurri laguntza dispositibo baten ibilera zehatza behatzea eta ulertzea.
- ☼ Enpatia eta bestearen errespetua garatzea.
- ☼ Herritar engaiamendua sustatzea.
- ☼ Erantzukizun jitea eta lankidetzazkartzeta.

Topaketak

Aritzea

Jarrerak

© Freepik



LM5



3 ikastetxeak



Martxoa >> Apirila
(udaberriko oporrak baino lehen)



Ikasgelan eta
GEUZaren janari
banaketaren lokalean
(Okineta)




Frantsesez eta/edo Euskaraz



Urraspide berezirik ez



Ziburuko Gizarte Ekintzako
Udal Zentroa
[s.barrio@](mailto:s.barrio@mairiedeciboure.comm)
mairiedeciboure.comm



HAUTUZKO IBILBIDEAK

- › Musika
- › Ikuskizun bizia
- › Irakurketa publikoa
- › Ondarea
- › Zientzia- eta teknika-kultura



SOINU-PAISAIAREN BIHOTZEAN

Ibilbidea Ziburun aterpetua den LagunArte konpainiaren SO sorkuntzaren harira proposatua da.

Soinu-paisaiaren inguruko zentzumen-esperientzia gisa pentsatua da eta ikasleak soinuaren, ekaien eta ingurumenaren arteko harremana ikertzera gomitatzen ditu. Ahotsa, soinu-gauzakiak eta argi lanaren bitartez, ikuskizunak murgiltze poetikoa proposatzen du, entzute, sentipen eta irudimenaren artean.

Ibilbidea honakoen inguruan antolatua da:

- » **SO ikuskizunaren emanaldia;**
- » **Lau arte-tailer:** soinu-gauzakiak ezagutzea eta maneiatzea, kantatzen ikastea, danborraren inguruko taldekako ikerketa, paisaia bat ikertzea eta soinu-ibilbide bat sortzea.

Aritzeko une horiek ikasleei ikuskizunaren ekaiak eta arau artistikoak esperimentatzeko bidea eskaintzen die, soinua eta entzutearen ikusmolde hunkigarria garatuz.

2025-2026 ikasturtean konpainiarekin eramaniko lana luzatzen duen ibilbideak hurbilpen berritua proposatzen du, soinu-paisaia eta murgiltze-esperientzia ardatz nagusitzat hartuz.

Entzuteko gaitasuna, sormena, taldekako adierazpena eta soinu-ingurumen bat sentitzeko eta eraikitzeko ikasleek duten gaitasuna garatzea ahalbidetzen du.

XEDETZAT HARTURIKO GAITASUNAK

- ☼ Pentsatzeko eta komunikatzeko mintzairak
- ☼ Ikasteko metodoak eta tresnak
- ☼ Pertsonaren eta herritarraren formakuntza
- ☼ Munduaren irudikapenak eta giza-jarduera

Topaketak

Aritzea

Jakintzak



AM1 >> AM3



2 ikastalde



2026ko azaroa >>abendua



Ikastetxean tailerretarako eta Guy Poulou erabilera anitzeko gelan ikuskizunerako



Frantsesez
Euskaraz



Irakasleek izena eman beharko dute Adage plataformaren bidez.



Kultura, ondarea eta
elkarte-bizitza zerbitzua
[animations@
mairiedeciboure.com](mailto:animations@mairiedeciboure.com)



MUSIKA

TRADIZIOA ETA SORKUNTZAREN ARTEAN: EUSKAL MUSIKAK ETA DANTZAK

Ibilbideak ikasleei euskal musikaren eta dantzaren munduan murgiltzea proposatzen die, ondare-ezagutza, artea eta artistekin topaketak nahasiz.

Kultura-nortasunaren inguruko gogoeta baten ildotik doa, bizia eta irekia dela sumatzen delarik, sorkuntza iturri eta mota garaikideekin loturan.

Ibilbidea honakoen inguruan antolatua da:

- **Soinuenea erakustokiaren bisita gidatua** eta musika tresnen eraikitzeari buruzko tailer bat Oartzunen, musika tresna tradizionalen aberastasuna (alboka, txalaparta, ttun-ttun...) eta haien erabilera ezagutzeko;
- **Sukaar proiektuaren entsegu publikoa** eta artistekin topaketa, ikasleei sorkuntza prozesua eta musika, dantza eta irudimena nahasten dituen arte mota bat hurbiletik ikusteko aukera eskainiz. Musika- eta koreografia-proiektuak euskal mitologia du iturri, musika tresna tradizionalak eta soinu garaikideak nahasiz, taldekako murgiltze esperientzia batean;
- Arratsean antolaturiko Juan Mari Beltran laukotearen **emanaldiak** esperientzia familian luzatzeko aukera eskainiko du. Laukotearen lana euskal musika tradizionalen transmisioan eta balorizazioan oinarritzen da, ikusmolde bizi eta helgarriarekin.

Ibilbideak ondarearen ezagutzetik ikuskizun biziaren esperientziarako bide bat proposatzen du, artistekin biltzeko aukera barne hartuz.

Euskal ondare kulturala transmititzean, sentikortasun artistikoaren garapenean eta tradizioa eta sorkuntza garaikidearen arteko loturak ulertzean parte hartzen du.

XEDETZAT HARTURIKO GAITASUNAK

- ☼ Pentsatzeko eta komunikatzeko mintzairak
- ☼ Ikasteko metodoak eta tresnak
- ☼ Munduaren irudikapenak eta giza-jarduera
- ☼ Pertsonaren eta herritarraren formakuntza



AM4 >> LM5



3 ikastalde



2026ko azaroa
>> 2027ko otsaila



Oartzunen erakustokia bisitatzeko eta tailerretarako eta Guy Poulou erabilera anitzeko gelan Sukaar proiektuaren artistekin biltzeko



Euskaraz



Irakasleek izena eman beharko dute Adage plataformaren bidez



Kultura, ondarea eta elkarte-bizitza zerbitzua
[animations@](mailto:animations@mairiedeciboure.com)
mairiedeciboure.com

Jakintzak



Aritzea

Topaketak

IKUSKIZUN BIZIA

INDAR TTIPIAK EZAGUTZERA

Ibilbidea Les Vibrantes konpainiaren *Les Petites Forces* (Indar ttipiak) sorkuntzaren egonaldiaren harira proposatua da.

Dantza eta zirkuaren artean, proiektuak mugimendua, sentipenak eta gorputzaren eraldaketak ikertzen ditu, publiko gazteari egokituriko ikusmolde hunkigarriarekin.

Indar Ttipiak ikuskizunak emanaldi laburra, sentSORIALA eta poetikoa proposatzen du. Gauzakiak bizidun bihurtzen eta eraldatzen direla dirudien mundu baten bitartez, ikasleak ezagutza, jakin-mina eta ezezagunarekiko harremana bezalako nozioak ikertzera gomitatuak dira. Ibilbidea osatzen dute honakoek:

- › **Egonaldi ondoko emanaldia** (lanaren urrats baten aurkezpena);
- › **Artistarekin biltzea**, krakada baten inguruan.

Abantailazko une horrek ikasleei aribidean den sorkuntza bat ezagutzeko eta artistarekin harreman zuzenean sartzeko bidea eskaintzen die, beren adinari egokituriko ingurumen goxoan.

Ibilbideak ikuskizun biziaren lehen esperientzia bat bizitzeko aukera eskaintzen du, jakin-mina, arreta eta sentikortasun artistikoa garatuz.

XEDETZAT HARTURIKO GAITASUNAK

- ☼ Pentsatzeko eta komunikatzeko mintzairak
- ☼ Ikasteko metodoak eta tresnak
- ☼ Munduaren irudikapenak eta giza-jarduera
- ☼ Pertsonaren eta herritarraren formakuntza

Jakintzak

Topaketak



© JeanMarcHellies



AM1 >> AM3



2 ikastalde



Irailaren 7ko astean



Guy Poulou erabilera
anitzeko gelan



Frantsesez
(ikuskizuna hitzik gabe)



Irakasleek izena eman
beharko dute Adage
plataformaren bidez



Kultura, ondarea eta
elkarte-bizitza zerbitzuak
[animations@
mairiedeciboure.com](mailto:animations@mairiedeciboure.com)



IKUSKIZUN BIZIA

GAUZAKIAK BIZIDUN BIHURTU, BESTE BIDE BATEZ KONTATU

Ibilbideak TOC Théâtre konpainiaren *Minus* ikuskizunarekin loturan proposatua da, Fred Bernard eta François Rocaren *Jésus Betz* eleberri grafikoan inspiraturiko gauzaki-antzerki mota bat.

Konpainiak lurraldean daraman **egonaldi luze baten ildotik** doa, 2027ko otsail eta ekainaren artean, ikastetxe desberdinekin loturan, itsas lizeoa barne.

Antzezpen zuzendaritza soil baten bitartez, antzerkilari batek eguneroko gauzaki batzuk bizidun bihurtzen ditu, batean pertsonaiak, bestean leku irudikapenak edota joko kideak bilakatzen direlarik. Ikuskizunak kontakizunaren ikusmolde hunkigarri eta poetikoa proposatzen du, irudimenari eta interpretazioari leku handia utziz.

Ibilbidea honakoen inguruan antolatua da:

- **Minus ikuskizunaren emanaldia;**
- **Arteetan aritzeko tailer ziklo bat** (20 oren gehienez), irakasleekin loturan eraikia.


Tailer horiek ikasleei gauzaki-antzerkiaren arauak ezagutzeko bidea eskaintzen diete: gauzakiak maneatzea, makur erabiltzea, irudiak sortzea eta kontatzea, egunerokotasuneko gauzaki sinpleetan oinarrituz.

Eramaniko lanak ikuskizunaren gaiekin ukan dezake oihartzun: desberdintasuna, besteari eskainiriko behakoa, araua eta berezitasuna besteak beste.

Ibilbideak ikasleei **ipuinak beste bide batez kontatzea esperimentatzeko bidea** eskaintzen die, sormena, irudimena eta gauzaki arruntei zentzua emateko gaitasuna garatuz.

XEDETZAT HARTURIKO GAITASUNAK

- ⚙ Pentsatzeko eta komunikatzeko mintzairak
- ⚙ Ikasteko metodoak eta tresnak
- ⚙ Munduaren irudikapenak eta giza-jarduera
- ⚙ Pertsonaren eta herritarraren formakuntza



© EricWalther



LM3 >> LM5



Berantago finkatzekoa



2027ko otsaila eta ekainaren artean



Berantago finkatzekoa



Frantsesez



Irakasleek izena eman beharko dute Adage plataformaren bidez.



Kultura, ondarea eta
elkarte-bizitza zerbitzua
[animations@
mairiedeciboure.com](mailto:animations@mairiedeciboure.com)

IRAKURKETA PUBLIKOA

KANTU ETA IPUIN TAPIZA EDO DABANTALA SORTU

Ibilbideak ama eskolako ikasleei **josteta kantuen eta ipuinen munduan murgiltzeko aukera** proposatzen die, elkarrekin kontakizun euskarri bat sortuz, Fany Comptines et Cie konpainiarekin elkarlanean.

Lau saiotan eramana da eta hurrei kantu edo/eta ipuin tapiz edo dabantal bat sortzeko bidea eskaintzen die, irakaslearekin hautaturiko gai batetik abiatuz (hitzordu bat finkatu beharko da ibilbidea hasi aitzin).

- **Lehen ezagutza saio bat**, ipuinak, kantuak eta zentzumen-ikerketak nahasten dituenak
- Euskarriaren elementuak sortzeko **taldekako lana** (pertsoneiak, gauzakiak, ekaia), konpainiak ereduak proposatuko dituelarik
- Hiru astez: **eraikitze urratsa ikasgelan**, bilketako ekai sinpleak baliatuz, esku hartzailea gabe baina bere ereduak erabiliz
- Ikasleek ehunak hautatzeko saio bat euskarriaren sortzea bukatzeko eta ikasgelan eginiko elementuak gehitzeko
- Dena **bukatzeko** (josteko makinaren erabilera) eta eginiko euskarria erabilgarri egiteko azken saioa

Haurrek sorturiko elementuak konpainiak tapizean edo dabantalean sartuko ditu, ikastalderako pedagogia-tresna iraunkorra bilakatuko dena.

Euskarriak ipuinak kontatzeko, kantatzeko eta erabiltzeko bidea eskaintzen du modu interaktiboan, ikasleak elementuen hautaketan eta erabiltzean parte harraraziz.

Ibilbideak mintzaira, irudimena eta ahozko adierazpena garatzea ahalbidetzen du, parte hartzea, maneiatzea eta taldekako sorkuntza bultzatuz.

XEDETZAT HARTURIKO GAITASUNAK

- ☀ Pentsatzeko eta komunikatzeko mintzairak
- ☀ Ikasteko metodoak eta tresnak
- ☀ Pertsonaren eta herritarren formakuntza
- ☀ Munduaren irudikapenak eta giza-jardura



AM1 >> AM3



2 ikastalde



2027ko lehen urte erdian



Mediatekan edo ikastetxean



Frantsesez



Irakasleek izena eman beharko dute Adage plataformaren bidez.



Kultura, ondarea eta elkarte-bizitza zerbitzua
animations@mairiedeciboure.com



IRAKURKETA PUBLIKOA

IRAKURRI, ERRAN ETA KONTAKIZUNEAN SARTU

Ibilbideak ikasleei irakurketa ozenaren eta testua bereganatzearen inguruko urraskako esperientzia proposatzen die, Les Tréteaux de France eta La Grande Illusion konpainiekin lankidetzan.

Bi une osagarri ditu ardatz, irakurketatik taldekako mamitzera pasatzea ahalbidetuz.

Ibilbidea honakoen inguruan antolatua da:

➤ **La Grande Illusion konpainiaren 18 kutunak (2027ko udaberrian)**

Ikasleek irati-irakurketarako murgiltze-esperientzia batean parte hartzen dute. Soinu-estudio bihurtu den karabana batean, gazteendako komiki bat irakurtzen dute mikroan, zuzeneko soinu-efektu eta musika lan batek lagundurik. Beste ikasleek kontakizuna entzuten dute murgiltze-entzunaldi batean. Irakurketak grabatuak dira eta ikastaldearekin eta familiekin partekatuak izan daitezke.

➤ **KiLLT - La Mare aux sorcières (Sorgin-putzua) ikuskizun parte hartzailea (2027ko ekainean)**

Ziburu Hartu Liburu jaialdiaren harira, ikasleak antzerki parte hartzaile batean murgiltzen dira, irakurtzera, erratera eta taldean testua mamitzera gomitatuak direlarik.

Ibilbideak irakurketa ozenetik taldekako antzerki-esperientzia mamitu baterako bidea proposatzen du.

Mintzatzeko aisetasuna, ahozko adierazpena, entzuteko gaitasuna eta nor bere baitako konfiantza garatzea ahalbidetzen du, irakurketarekiko harreman aktiboa eta hunkigarria sustatuz.

XEDETZAT HARTURIKO GAITASUNAK

- ☼ Pentsatzeko eta komunikatzeko mintzairak
- ☼ Ikasteko metodoak eta tresnak
- ☼ Pertsonaren eta herritarraren formakuntza
- ☼ Munduaren irudikapenak eta giza-jarduera



© Mapirudi



LM4 >> LM5



3 ikastalde *KiLLT* ikuskizunerako eta bi ikastalde *Les 18 grigris* (18 kutunak) ikuskizunerako



2027ko Maiatza >> Ekaina



Irakasleekin loturan finkatzekoa



Frantsesez



Irakasleek izena eman beharko dute Adage plataformaren bidez



Kultura, ondarea eta elkarte-bizitza zerbitzua
[animations@
mairiedeciboure.com](mailto:animations@mairiedeciboure.com)



ESPLORATZAILEAK, ARTE ETA HISTORIA HERRIALDEKO HEZKUNTZA-EKINTZAK

Donibane Lohizune-Ziburuko Arte eta Historia Herrialdea ondarea eta bizi ingurumena balioan ezartzeko bitartekaritza urraspide batean engaiatua da.

2016an Kultura ministerioarekin izenpeturiko hitzarmen baten bitartez, Donibane Lohizune-Ziburuko Arte eta Historia Herrialdeak gazteak ondareari eta bizi ingurumenari buruz sentibilizatzea hitzeman du. **Errekoletok Arkitekturaren eta Ondarearen Interpretazio Zentroa (AOIZ)** urraspide horren tresna nagusia da. Gaikako bisitak eta tailer jostagarriak zuzenduak zaizkie ama eskolatik azken mailako ikasleei urte osoan zehar.

...ESKOLAKO PROGRAMAREKIN LOTURAN

- Gauzaturiko pedagogiak honakoak ditu ardatz:
- Ondarearekin harreman hurbila bizitzeko aukera ematea
- Arkitektura, hirigintza eta ingurumena modu bizian eta sententzian ulertzea;
- Esperimentazioa baliatzea, material egokituari esker, nozio korapilatsuak haurrek ulertzeko gisan;
- Behakoa hezte, behatzen eta adierazten ikastea bizi ingurumena ulertzeko;
- Ikasitakoak gauzatzea plastika-sorkuntzen bitartez.

...ESKOLAKO PROGRAMAREKIN LOTURAN

- Frantsesa: hiztegia, ahozko eta idatzizko adierazpena
- Matematikak: geometria, neurri nozioak, eskala, planoak, perspektibak
- Munduaren ezagutza: espazioan eta denboran nor bere burua kokatzea
- Historia: Erdi Aroa, aro modernoa eta Luis XIV.a, XIX. eta XX. mendeak, gure garaia
- Geografia: paisaiak, hirigintza, itsasbazterrean bizitzea
- Herritar heziketa: herritarra hirian, aginte guneak, bizi ingurumena eta ondarearen zaintza
- Arte-hezkuntza - Arteen historia: arkitektura nozioak, ikusmen-arteak, marrazketa eta arte plastikoak erabiltzea obratzean

ERREKOLETOAK AOIZ HURBILAGOTIK

Donibane Lohizune-Ziburuko portuaren erdi-erdian kokaturik, Errekoletok Arkitekturaren eta Ondarearen Interpretazio Zentroa XVII. mendeko komentu zahar batean jarria da.

Donibane Lohizune-Ziburuko ondareari eskainiriko gunea:

- Ibilbide jostagarria eta interaktiboa **ESPERIMENTATZEKO**
- 2 000 m² baino gehiagoko gune historikoa **EZAGUTZEKO**
- Bisita, tailer, erakusketa, hitzaldi, ikuskizun programazio bati esker ondarea **IKERTZEKO**

Eskolako ikasleei eskainiriko gunea:

- Publiko gaztearendako ibilbidearekin
- Gela pedagogiko batekin
- Bitartekaritza tresna egokituarekin: maketak, ekaitegia, bideoak...



© ARC&SITES architectes 2023 – crédit photo : KOMCEBO

Argibideak eta izen emateak:

Maider Mourguiart, Publiko gaztearen bitartekaria
05 59 51 61 75 / 06 64 34 33 00
maider.mourguiart@baiestjeandeluzciboure.fr



ZIBURUKO MONUMENTUAK EZAGUTZERA

BORDAGAIN

-  2h
-  3. zikloa, bigarren maila, lizeoa
-  Ziburu, Bordagain
-  Frantsesez, euskaraz

Eliza, begiratokia, Gaztelu zaharraren elementu nagusia: Bordagainek bizi bat baino gehiago izan ditu. Bisitak ikasleei erlisionezkoa eta militarra den ondarea ulertzeko bidea eskainiko die. Azkenik, tontorretik badia osora ematen duen ikuspegi paregabeaz gozatuko dute.

Helburuak:

- » Ziburu eta badia ezagutzea gainaldeetatik ikusirik
- » Erlisionezkoa eta militarra den arkitektura ulertzea
- » Kartografiaren nozio batzuk aipatzea

ERREKOLETOAK: 400 URTEKO HISTORIA!

-  2h
-  3. zikloa, bigarren maila, lizeoa
-  Ziburu, Errekoletok AOIZ
-  Frantsesez, euskaraz

1613tik goiti, Errekoletoen komentua eta portuko paisaia elkarretarik bereizezinak dira. Horren sortzeak eta bilakaerak gure lurraldeko historiari buruz anitz salatzen dute. Bere sortzean eta zaharberritzean, monumentu hori tokiko antzeen lekukotasuna da.

Helburuak:

- » Tokiko historia aipatzea komentuaren bizitzan murgilduz eta artxiboko dokumentuetan oinarrituz
- » Bertako biztanleen bizitza ezagutzea: fraideak, mugazainak, langileak
- » XVII. mendeko erlisione-arkitektura ulertzea

ZOKOA: AUZOTEGIA, PORTUA, GOTORLEKUA

-  2h
-  3. zikloa, bigarren maila, lizeoa
-  Ziburu, Zokoko gotorlekua
-  Frantsesez, euskaraz

Badiako zoko bat leku irudikapen gisa.

Pertsonaiak: mugazainak, Vauban marexala, ur-hegazkinak, lantegi bat, ikastetxe bat...

Hori bederen beharko du gidariak Zokoko auzotegiaren 400 urteko historia kontatzeko. Puntu nagusi gisa, abentura horren pertsonaia nagusia: gotorlekua.

Helburuak:

- » Zokoko auzotegiaren historia ezagutzea
- » Arkitektura militarra ulertzea
- » Gotorlekuan bizi izan direnen bizitza ulertzea

ARGI GUZIAK ZIBURUREN GAINERA!

-  2h
-  2. zikloa, 3. zikloa, bigarren maila
-  Ziburu, Errekoletok AOIZ
-  Frantsesez, euskaraz

Ziburuko itsasargiaren bisitak portuaren gaineko behako berria eskaintzen du. André Pavlovskyren obra nagusi hori ezagutzean, horren ibilera eta itsas munduarentzat duen baliagarritasuna ulertuko dute ikasleek. Baina monumentu hori zenbait farozain belaunaldien bizilekua ere izan zen...

Helburuak:

- » André Pavlovsky arkitektoaren obra ulertzea
- » Itsasargiaren ibilera ezagutzea
- » Gure itsasbazterreko balizamendua ulertzea



Arte eta Historia Herrialdeak beste bisitak, arte-ibilbideak eta tailerrak proposatzen ditu. "Esploratzaileak" izendaturiko liburuxkan aurkituko dituzu.



EUSKAL ITSASBAZTERREKO IEZIREN INGURUMEN-HEZKUNTZA PROIEKTUAK

2022tik goiti, urteko hitzarmen baten harira, Euskal Itsasbazterreko IEZIk Ziburuko Herriko Etxea trantsizio ekologikoaren bidean laguntzen du. Kari horretara, zenbait lan ardatz zehaztuak izan dira, besteak beste ingurumen-hezkuntza herriko ikastetxeetan.

Horrela, urtero, Ziburuko ikastetxeek ingurumenarekin eta garapen iraunkorrarekin loturan diren animazioak balia ditzakete, adin desberdinei egokituak.


Ikasturteko 6 egun erdiak baliatu ondotik, prezioak honela oinarritzen dira: animatzaile bat jarduera bakoitz eta egun erdi bakoitz, 30 ikaslez gehienez osaturiko talde batentzat:

- ✦ Hots 220 €ko prezio finkoa / animatzaile bat / egun erdi bat (440 € / animatzaile bat / egun osoa)

30 ikasle baino gehiagoko ikastaldea bi taldetan banatuko da, bakoitza animatzaile baten ardurapean, prezio finkoa aplikatuz.

XEDETZAT HARTURIKO GAITASUNAK

- ☼ Pentsatzeko eta komunikatzeko mintzairak
- ☼ Ikasteko metodoak eta tresnak
- ☼ Munduaren irudikapenak eta giza-jarduera
- ☼ Pertsonaren eta herritarraren formakuntza
- ☼ Natura-sistemak eta teknika-sistemak



Jakintzak



ANIMAZIOEN
ESKAITZA OROKORRA



Ama eskola >> lehen maila (hautatutako animazioaren arabera)



6 egun-erdi ikasturtean (orokorki ikastetxe guzientzat)



Iraila >> Ekaina



Ziburun (hautatutako animazioaren arabera)



Kultura, ondarea eta
elkarte-bizitza zerbitzua
[animations@
mairiedeciboure.com](mailto:animations@mairiedeciboure.com)



ITSAS BIOANIZTASUNA ETA ITSAS ONDAREA

«UHARRIEN AZPIAN, BIZIA»

-  Marearteko zona arrokatuaren aberedia eta lorediaren bioaniztasuna itsasbeheran
-  2h30
-  Ama eskola eta lehen maila
-  Frantsesez eta euskaraz

«ITSASOKO HONDAR NATURALAK, ZER DIRA?»

-  Itsasoko hondar naturalen ekosistema: osaketa biologikoa eta betekizun ekologikoa
-  2h30
-  Ama eskola eta lehen maila
-  Frantsesez eta euskaraz

«ITSASBAZTERREKO ARRANTZA EUSKAL HERRIAN»

-  Euskal itsasbazterrean arrantzaturiko itsas animalia nagusiak | Arrantza teknikak
-  2h30
-  Lehen maila
-  Frantsesez eta euskaraz

«EUSKALDUNEN BALEA»

-  Balea baliabide natural gisa | Bale ihizia euskal itsasbazterrean
-  2h30
-  Lehen maila
-  Frantsesez eta euskaraz

«ONTZIGINTZA EUSKAL HERRIAN XVI. MENDEAN»

-  16. mendean, euskaldunek itsasontziak nola eraikitzen zituzten ulertzea
-  2h30
-  Lehen maila
-  Frantsesez eta euskaraz

«KORAPILOAK AIREZ AIRE»

-  Haurrei korapiloak ezagutzeko eta egiteko bidea eskaintzen dien sorkuntza-tailer praktikoa
-  2h30
-  Lehen maila
-  Frantsesez eta euskaraz





ZIENTZIA- ETA TEKNIKA-KULTURA

LURREKO BIOANIZTASUNA

«ZENTZUMENAK ERNE»

- 📍 Gure bost zentzumenak erabili izadia ikertzeko
- 📅 2h30
- 👤 Ama eskola eta lehen maila
- 💬 Frantsesez eta euskaraz

«LAND ART»

- 📍 Haurrei naturagunea ezagutzeko bidea eskaintzen dien sorkuntza eta zentzumen tailerra, izadian eginiko obra iragankorrak sortuz, elementu naturaletik abiatuz
- 📅 2h30
- 👤 Ama eskola eta lehen maila
- 💬 Frantsesez eta euskaraz

«IGERIKA, HERRESTAKA EDO HEGALDAKA DABILTZAN ANIMALIA TTIPI-TTIPIAK»

- 📍 Errekako edo itsasbazterreko larre, pentze eta oihanetako mikroaberedia ezagutu
- 📅 2h30
- 👤 Ama eskola eta lehen maila
- 💬 Frantsesez eta euskaraz

«BIOANIZTASUNA ATERPETU IKASTETXEAN»

- 📍 Bioaniztasuna aterpetzeko gerizalekuak eraiki eta jarri ikastetxean
- 📅 Zenbait saio
- 👤 Ama eskola eta lehen maila
- 💬 Frantsesez eta euskaraz

«ZUHAITZ HOSTOTIK MARRAZTEKO HOSTORA»

- 📍 Zuhaitzak identifikatu, hostoei, kimuei, azalari esker | Zuhaitza nola bizi den ulertu
- 📅 2h30
- 👤 AM4 eta LM5 artekoak
- 💬 Frantsesez eta euskaraz

«PILOTA HEDATU»

- 📍 Gaueko eta eguneko harrapariak, haien habitatak, elikamoldeak, biologia eta jokabideak ezagutu
- 📅 2h30
- 👤 Lehen maila
- 💬 Frantsesez eta euskaraz

«HEGAZTIEN KANTUAK ENTZUTEN EGON»

- 📍 Hegaztien kantuen eta tiuten erran-nahia | Hegazti mota arruntenen kantuak identifikatu
- 📅 2h30
- 👤 3. zikloa
- 💬 Frantsesez

«ZENTZUMEN-BIDAIA ERLEEN MUNDUAN»

- 📍 Erleen gizarte antolaketa eta kofoineko ekoizkinak ezagutzeko zentzumen-tailerra
- 📅 2h30
- 👤 Lehen maila
- 💬 Frantsesez eta euskaraz

«IZADIAREN ALDEKO ESKUKALDIA!»

- 📍 Landare inbaditzaileak: Zein dira? Nondik heldu dira? Zer ondorio izadian? | Aterabide bat: lan parte hartzaile bat proposatu
- 📅 2h30
- 👤 3. zikloa
- 💬 Frantsesez eta euskaraz





PAISAIK, GEOLOGIA ETA KULTURA-ONDAREA

«ZER PAISAIA?»

-  Paisaiaren irakurketa: elementu naturalak eta ez naturalak behatu eta identifikatu | Itsasbazterreko hiztegi berezia
-  2h30
-  Lehen maila
-  Frantsesez eta euskaraz

«ARKEOLOGO BATEN LARRUAN»

-  Arkeologia-zientzietan hasteko tailerra miaketa ontzien bidez Gotorlekuko, Zokoko edo Kuboaren hondartzan, gauzaki batzuen kopiekin
-  2h30
-  Lehen maila
-  Frantsesez eta euskaraz

«MINTZO DIREN HARRIAK»

-  Euskal itsasbazterreko jalkitze-arroken eta itsas ezponden osaketa | Higaduraren ekintza | Itsasbazterreko arrisku naturalak
-  2h30
-  3. zikloa
-  Frantsesez eta euskaraz

«EUSKAL MITOLOGIA, MITOAK ETA ERREALITATEAREN ARTEAN»

-  Euskal mitologiaren pertsonaia nagusiak eta elezahar batzuk ezagutzeko ibilaldi kontatua
-  2h30
-  Ama eskola eta lehen maila
-  Frantsesez eta euskaraz

«LARREAREN BIHOTZEAN»

-  Habitat natural berezia ezagutu: itsasbazterreko larrea eta mehatxatzen duten faktoreak
-  2h30
-  3. zikloa
-  Frantsesez eta euskaraz





“OHITURA EKOARDURATSUAK” PEDAGOGIA-MALETA

Hautzaroa, gazteria eta kirolak zerbitzuko langileek animaturik, ibilbideak ikasleei ingurumenaren babesa sustatzen duten ohiturak ezagutzeko, ulertzeko eta esperimentatzeko bidea eskaintzen die. Jarduera jostagarri eta interaktiboan bitartez, ikasleak beren ohiturei buruz gogoetatzera eta jokabide arduratsuak hartzera ekarriak dira.

Ibilbidea honakoen inguruan antolatua da:

- ✦ **Hondakinak bereizteko eta kudeatzeko** jarduerak;
- ✦ Energia-kontsumoari eta eguneroko ohiturei buruz **sentsibilizatzea**;
- ✦ Gure kontsumitzeko moduek ingurumenaren gainean duten eraginari buruzko **jokoak**;
- ✦ Bioaniztasunari eta baliabideei loturiko erronkak hobeki ulertzeko bidea eskaintzen duten **egoerak**.

Ikasleek tailer desberdinetan parte hartzen dute (jokoak, egoera errealak, maneiuak), trukatzeko, gogoetatzeko eta aipaturiko nozioak ulertzea sustatzen dituztenak.

Ibilbideak ingurumenari loturiko jakintzak, erantzukizun jitea eta egunerokotasunean modu arduratsuan aritzeko gaitasuna garatzea ahalbidetzen du.

XEDETZAT HARTURIKO GAITASUNAK

- ☼ Pentsatzeko eta komunikatzeko mintzairak
- ☼ Ikasteko metodoak eta tresnak
- ☼ Pertsonaren eta herritarraren formakuntza
- ☼ Natura-sistemak eta teknika-sistemak
- ☼ Munduaren irudikapenak eta giza-jarduera

Jakintzak



LM4 >> LM5



Eskaeraren arabera



Urte osoan zehar



Ikasgelan



Frantsesez
Euskaraz



Urraspide berezirik ez



Hautzaroa, gazteria
eta kirolak zerbitzua
[k.luberriaga@](mailto:k.luberriaga@mairiedeciboure.com)
mairiedeciboure.com



ZIENTZIA- ETA TEKNIKA-KULTURA

“DESBERDINTASUNA ETA AHALMEN URRITASUNA” PEDAGOGIA-MALETA

Ibilbideak ikasleei ahalmen urritasun egoerak hobeki ulertzeko eta desberdintasunei behako inklusiboago bat eskaintzeko aukera proposatzen die. Murgiltze-, josteta- eta gogoeta-jardueren bitartez, ikasleak beren aniztasunaren ulermena esperimintatzera, trukatzera eta garatzera ekarriak dira. Ibilbidea honakoen inguruan antolatua da:

- Autonomia sustatzeko laguntza teknikoak **ezagutzeko tailerra**;
- Eguneroko ahalmen urritasun egoera batzuk esperimintatzeko **murgiltze-jarduera**;
- **Trukaketa eta eztabaida une** bat inklusioa sustatzeko jokabideen inguruan;
- Ibilbidearen hatzak atxikitzeko **sorkuntza-ekoizpena**.

Horrez gain, kirol saio egokitua proposatua izan daiteke gorputz-esperientzia bidezko gogoeta luzatzeko.

Zenbait modutan egin daiteke:

- **Animatzaileek ikasgelan eramaniko tailerrak** (4 oren gehienez ikastalde bakoitz);
- **Irakasleak eramaniko tailerrak**, aitzinetikako prestaketa eta laguntza une batekin (2 oren ikastalde bakoitz);
- **Esku hartzeak eta laguntza batzen dituen modua**.

Ibilbideak ahalmen urritasun egoeren ulermena, besteen errespetua eta gizarte-gaitasunak garatzea ahalbidetzen du, inklusioari eta elkar-bizitzari buruzko gogoeta sustatuz.

XEDETZAT HARTURIKO GAITASUNAK

- ☀ Pentsatzeko eta komunikatzeko mintzairak
- ☀ Ikasteko metodoak eta tresnak
- ☀ Munduaren irudikapenak eta giza-jarduera
- ☀ Pertsonaren eta herritarren formakuntza

jakintzak



LM1 >> LM5



Eskaeraren arabera



Urtariletik goiti



Ikasgelan



Frantsesez
Euskaraz



Urraspide berezirik ez



Hautzaroa, gazteria
eta kirolak zerbitzua
[k.luberriaga@](mailto:k.luberriaga@mairiedeciboure.com)
mairiedeciboure.com

ZIENTZIA- ETA TEKNIKA-KULTURA

ERLEEN MUNDUA EZAGUTZERA

Ibilbideak gure ingurumenean erleek duten funtsezko eginkizuna eta erlezaintzaren oinarriak ezagutzeko bidea proposatzen die ikasleei.

Behaketa, manei u eta trukaketa une batzuen bitartez, ikasleak kofoin baten ibilera, polinizatzaileen eginkizuna eta bioaniztasunari loturiko erronkak ulertzea ekarriak dira.

Ibilbidea honakoen inguruan antolatua da:

- Kofoin baten **ibilera** eta erleen antolaketa **ezagutzea**;
- Ekosistemetan polinizatzaileek duten eginkizunari buruz **sentsibilizatzea**;
- Erlezaintzaren inguruko **behaketa eta manei u jarduerak**.

Ibilbidea euskaraz proposatua da Inaxi Garatekin eta frantsesez L'Abeille Étoile elkartearekin. Edukia eta ibilbidea egokituak izan daitezke ikastaldean arabera, eta ikasturtean zehar zehaztuko dira.


Ibilbideak jakintza zientifikoak, behaketa jitea eta oreka naturalen ulermena garatzea ahalbidetzen du, ikasleak bioaniztasunaren zaintzari buruz sentsibilizatuz.

XEDETZAT HARTURIKO GAITASUNAK

- ☀ Ikasteko metodoak eta tresnak
- ☀ Munduaren irudikapenak eta giza-jarduera
- ☀ Pertsonaren eta herritarraren formakuntza
- ☀ Natura-sistemak eta teknika-sistemak



Jakintzak



LM4 >> LM5



3 ikastalde
(bat ikastetxe bakoitz)



Otsaila >> Ekaina (L'Abeille
Étoile elkartearekin) eta
udaberrian Inaxi Garatekin



Egun erdi bat ikasgelan
eta beste bat kanpoan
ahalaz



Frantsesez
Euskaraz



Urraspide berezirik ez



Kultura, ondarea eta
elkarte-bizitza zerbitzua
[animations@
mairiedeciboure.com](mailto:animations@mairiedeciboure.com)



ZIENTZIA- ETA TEKNIKA-KULTURA

ONGI JATEARI BURUZKO HEZKUNTZA-IBILBIDEA

Elikamoldeari buruzko hezkuntza eskolan hasten da, haurrek lehen hazkurri ohiturak hor barneratzen dituztelarik. Eskola garai osoan zehar eta batez ere 2. zikloaren denboran, eskola-programek ikasleen elikaduraren arloko jakintzak garatzen dituzte.

Ikasgelan eramaniko lana luzatzeko, Ziburuko Herriko Etxeak ongi jateari buruzko hezkuntza-ibilbide bat proposatzen du.

Ibilbidea honakoen inguruan antolatua da:

- **Egun bat Lurraman**, laborantza herrikoia eta iraunkorraren azoka, 2026ko azaroaren 6an. Izena eman duen ikastalde bakoitzak azoka libreki bisitatzen, tailerretan parte hartzen eta mota anitzeko animazioez gozatzen ahalko du egun osoan zehar, lurraldeko ekoizleekin eta eragileekin loturan;
- "Sasoiko platera" izendaturiko **45 minutuko tailerra talde erdian**, sasoiko fruitu eta barazkiak ezagutzeko eta sasoiz kanpoko kontsumoaren eragin ekonomikoa ulertzeko, Sarde Sardexka elkarteak eramanik frantsesez eta Idokik euskaraz.

Ibilbideak elikadurari loturiko jakintzak garatzea, ikasleak kontsumoaren eta sasoikotasunaren erronkei buruz sentsibilizatzea eta elikamolde arduratsuagoak hartzeko bidean laguntzea ahalbidetzen du.

XEDETZAT HARTURIKO GAITASUNAK

- ☼ Pentsatzeko eta komunikatzeko mintzairak
- ☼ Ikasteko metodoak eta tresnak
- ☼ Munduaren irudikapenak eta giza-jarduera
- ☼ Pertsonaren eta herriarraren formakuntza
- ☼ Natura-sistemak eta teknika-sistemak

Jakintzak



LM1 >> LM3



3 ikastalde
(bat ikastetxe bakoitz)



2026ko azaroan



Toki desberdinetan



Frantsesez
Euskaraz



Urraspide berezirik ez



Kultura, ondarea
eta elkarte-bizitza
zerbitzua
[animations@
mairiedeciboure.com](mailto:animations@mairiedeciboure.com)



GIZARTERATZE NUMERIKOAREN KODEAK

LM4-LM5 mailako ikasleei proposaturiko ibilbideak **numerikoaren eta sare sozialen erabilerak hobeki ulertzea** ahalbidetzen du, ohitura arduratsuak eta segurak har ditzaten.

Numerikoaren garaian, sare sozialek leku handia hartzen dute gazteen egunerokotasunean. Ondorioz, duten erabilerari loturiko erronkak ulertzen laguntzea funtsezkoa da.

Ibilbidea AdoEnia Iparraldeko Nerabeen Etxeak garatzen duen **Résolab dispositiboan** oinarritzen da, Euskal Kostaldeko Ospitaleak eramanik. Plataforma pedagogiko horrek ikasleak egoera errealetan ezartzea ahalbidetzen du, alegiazko sare sozial baten bitartez.

Ibilbidea honakoen inguruan antolatua da:

- › Egoera errealak sortzea Résolab sare sozialean;
- › Argitaratzeko eskubidearen eta lineako erantzukizunaren inguruko gogoeta;
- › Berri faltsuei eta desinformazioari buruz sentsibilizatzea;
- › Ziberbortizkerien prebentzioa;
- › Datu pertsonalen babesari buruzko lehen irakaspenak.

Ziburuko Herriko Etxeko animatzaileek ikasgelan animaturiko tailerrak, AdoEniak garatzen dituen pedagogia-baliabideetatik abiatuz.

Ibilbideak izpiritu kritikoa, erantzukizun jitea eta numerikoaren erabilera arduratsua garatzea ahalbidetzen du.

XEDETZAT HARTURIKO GAITASUNAK

- ☀ Pentsatzeko eta komunikatzeko mintzairak
- ☀ Ikasteko metodoak eta tresnak
- ☀ Pertsonaren eta herritarren formakuntza
- ☀ Natura-sistemak eta teknika-sistemak
- ☀ Munduaren irudikapenak eta giza-jarduera



LM4 >> LM5



3 ikastetxeak



Ikasturte osoan zehar



Ikasgelan



Frantsesez
Euskaraz



Urraspide berezirik ez



Hautzaroa, gazteria eta
kirolak zerbitzua


k.luberriaga@

mairiedeciboure.com




AUTONOMIAN BALIATZEKO BALIABIDEAK

- › Kaskaroten ibilaldia
- › Bidexka antolatua Untsin auzotegiaren bihotzean



KASKAROTEN IBILALDIA



2021etik goiti, Ziburuko Herriko Etxeak jokoak eta pedagogia batzen dituen familia-jarduera bat proposatzen du udaberriko oporretan. Urtero, ibilbide jostagarri batek biztanleak edo bisitariak hiria eta auzotegietako historia ezagutzera gomitatzeko ditu. Ibilaldia autonomian egin daiteke liburuxka bati esker. Joko batzuek puntu batetik bestera joateko bidea eskaintzen dute.

Herriko Etxeak liburuxka hori uzten du ikastetxeen esku, haien ikasleak hiria ezagutzera eraman nahi dituzten irakasleentzat.



**2021EKO KASKAROTEN
IBILALDIA: HIRI-BARNEA**



**2022KO KASKAROTEN IBILALDIA:
ZOKOA**



**2023KO KASKAROTEN IBILALDIA:
GURUTZEXURI ETA GURUTZE GORRI**



**2024KO KASKAROTEN IBILALDIA:
MARINELA ETA ZUBIBURU**




**2025EKO KASKAROTEN IBILALDIA: ITSASBAZTERREKO
SEKRETUAK ETA ARRISKU NATURALAK**



**2026KO KASKAROTEN IBILALDIA: ZIBURU,
OROIMEN BIZIA KARRIKETAN GAINDI**





BIDEXKA ANTOLATUA UNTSIN AUZOTEGIAREN BIHOTZEAN

2022ko udazkeneko oportetan, gazte guneko nerabeak Ziburun gaindi ibili dira berriz ere, bidexka berri bat proposatzeko. **Frantziako Oihanen Bulegoko erretratua den Antton Goicoecheak lagundurik eta zuzendurik**, bide bat balizaz markatu dute Untsingo ezagutza-bide berriaren pedagogia-seinaleak jarritz. Untsingo pilota plazatik abiatuz, bidexkak oihan sortuberriaren, gaztearen eta zaharraren garapena eta landaturiko tokiko zuhaitz motak ezagutzea ahalbidetzen du. Ondoko urratsak bidexka hori Harrobia eta Bordagain muinoaren arteko bidexkari lotzea ahalbidetuko du, itzuli handi bat eskaintzeko Untsingo gainaldeetan.

Ekimena balia ezazue zuen **ikasleak oihanen eta naturaguneen garrantziari buruz sentsibilizatzeko**, ibilaldi bat ere proposatuz.



HARREMANETARAKO

Kultura, ondarea eta elkarre-bizitza zerbitzua:

animations@mairiedeciboure.com

06 10 75 45 61

Hezkuntza zerbitzua:

m.marticoarena@mairiedeciboure.com

05 59 47 11 71

Hautzaroa, gazteria eta kirolak zerbitzua:

k.luberriaga@mairiedeciboure.com

05 59 24 65 58

Mediateka:

mediatheque@mairiedeciboure.com

06 64 74 67 43

Ziburuko Herriko Etxea:

mairie@mairiedeciboure.com

05 59 47 26 06

www.ziburuko-hiria.eus

 Ville de Ciboure - Ziburuko Hiria

 ciboure_ziburu


ZIBURU
CIBOURE

MAIRIE – HERRIKO ETXEA